



SINATZAILEA

Berako idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2024/06/10herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

## DEIALDIA ERAIKUNTZAKO OFIZIAL-PROFILA DUTEN ZERBITZU ANITZETAKO 2 LANGILE KONTRATATZEKO, ALDI BATERAKO LAN KONTRATUEKIN, ETA HAUTAPEN PROBEN BITARTEZ (HIRIKO OINEZKOEN IBILBIDEETAN IRISGARRITASUNA HOBETZEA PROIEKTUA). OINARRIAK.

### 1. oinarria. Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da eraikuntzako ofizial-profila duten zerbitzu anitzetako 2 langile kontratatzeako, aldi baterako lan kontratuekin, eta hautapen proben bitartez, lan hauek egiteko udal-barrutian: Baztango lauzazko espaloiak konpontzea eta oinezkoentzako pasabideak beharrezkoa, irisgarritasun-estandarrak betetzeko.

Lansaria: lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen C mailari dagozkion oinarriko lansariak izanen ditu, gehi %12 (mailako osagarria), Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren arabera (1.655,56 euro gordin hilean).

Kontratuaren iraupena: 6 hilabete (aurreikusitako hasiera-data: 2024ko uztailaren 1a, gutxi gorabehera). Hilabeteko probaldia.

Euskara: lanpostuak aldi baterako direnez, ahozko gaitasunetan B2 mailako euskararen ezagutza egiaztatu beharko dute izangaiek. Era berean, euskaraz idatzitako testuak ulertzeko gai izan beharko dute, eta, beraz, oinarri hauek euskaraz baino ez dira idatziko, itzulpena berariaz eskatzen ez bada.

Kontratazioak egingo dira Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 251/2018 Ebazpenaren baitan (interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki entitateei emanen zaizkien diru-laguntzen deialdia).

### 2. oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak (eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean):

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen joan-etorri askea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko tratatuek ukitutako estatuetako herritarren ezkontideek ere parte har dezakete,



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikokoan argitaratua  
2024/06/10

BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAQF PX9U QM9A 9NFQ

**DEIALDIA ERAIKUNTZAKO OFIZIAL-PROFILA DUTEN ZERBITZU ANITZETAKO 2 LANGILE KONTRATATZEKO - SEFYCU 72925**Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2024/06/10



ZIGILUA

Tragarri-ohol elektronikoa argitaratua  
2024/06/10

zuzenbidez bereizita ez badaude. Era berean, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, legez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Hauetako titulazio bat: Batxilergoa, bigarren mailako Lanbide Heziketa edo baliokideak, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina edukitzea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia izan ez izana.

f) Euskararen ezagutza maila kreditatzea –B2 ahazkoan- honela:

- B2 mailako agiria edo baliokidea aurkeztu eskaerarekin batera;
- edota jakite-maila egiaztatzeko probak gainditzea.

g) B motako gidabaimena edukitzea.

h) Enplegu-eskatzaileria gisa inskribatuta egotea Nafar Lansareko enplegu bulego batean eta dagokion zundaketan sartua egotea. Kontrataziotik kanpo geldituko dira Nafarroako Foru Komunitateko toki erakunde batek, deialdi honen babesean, ekitaldi berean edo aurre-aurreko bietan, hiru hilabetez edo gehiagoz kontratatu eta diruz lagundutako pertsonak, 3.1.a) oinarrian ezarritako kolektiboen kasuan izan ezik.

### 3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Eskabideak Berako Udaletxeko Erregistroan aurkeztu behar dira edota 39/2015 Legeko 16.4 artikulua jartzen dituen baliabideak erabilia. Bigarren kasu hortan, 24 orduko epean, izangaiak posta elektronikoz jakinarazi beharko dio Berako Udalari eskaera aurkeztu duela ([bera@bera.eus](mailto:bera@bera.eus)).

Gainera, “Correos”eko bulego batean aurkeztuz gero, kartazal ireki batean sartu beharko du eskaera, ziurtatu aurretik datatu eta zigilatua ahal izateko.



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAQF PX9U QM9A 9NFQ

**DEIALDIA ERAIKUNTZAKO OFIZIAL-PROFILA DUTEN ZERBITZU ANITZETAKO 2 LANGILE KONTRATATZEKO - SEFYCU 72925**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2024/06/10



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua  
2024/06/10

3.2. Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izanen dira, eta haietan izangaiek adierazi behar dute betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

3.3. Epea: Interesdunek eskabideak aurkeztu ahalko dituzte **2024ko ekainaren 20ra arte**. Egun hortako ordu hauetan bukatuko da epea:

- Aurkezpen pertsonala Berako Udaletxeko Erregistroan: **13:30**.
- 39/2015 Legearen 16.4 artikuluko baldintzak erabiliz aurkeztuz gero:

**23:59**.

3.4. Eskabidearekin batera dokumentazioa aurkeztu behar da: NAN, 2 c), f) eta g) oinarrietako titulu eta agiriak (edo titulu horiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eskuratzeko baldintzak betetzen dituela frogatzen duen agiria) eta enplegu txartela. Gainera, h) ataleko agiriak aurkeztu behar dira.

#### **4. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.**

4.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

- Lehendakaria: Aitor Elexpuru Egaña, Berako Udaleko alkatea.

Ordezkoa: Francisco Larrechea Lazcano, Berako Udaleko zinegotzia.

- Mahaikidea: Miguel J. Belarra Tellechea, Berako Udaleko idazkaria.

Ordezkoa: M. Dolores Oyarzabal Zubieta, Berako Udaleko kontu-hartzailea.

- Mahaikidea: Gonzaga Jesús Aristondo Cartagena, Berako Udaleko arkitekto teknikoa.

Ordezkoa: Cristina Arregi Gonzalo, Nasuvinsako arkitekto aholkularia.

- Mahaikidea: Jose Javier Taberna Agesta, Berako Udaleko zerbitzu anitzetako enplegatua.

Ordezkoa: Juan Tomás Loyarte Mariezcurrena, Berako Udaleko zerbitzu anitzetako enplegatua.

- Mahaikidea, langilegoa ordezkatuz: Mattin Joxe Leiza Larralde, Berako Udaleko albientea.

Ordezkoa: Gemma Mitxelena Agesta, Berako Udaleko administraria.

4.2. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe. Idazkaria izendatuko da kideen artean. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazio eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabeherak. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan.

#### **5. oinarria. Probak.**

5.1. **Euskara proba.** Baztertzailerak izango da eta B2 edo baliokidea aurkeztu ez duten hautagaiei egingo zaie.





SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2024/06/10



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua  
2024/06/10

Ahozko azterketak egingo dira eskatutako hizkuntza jakite maila frogatzeko. “Gai” edo “ez gai”tzat hartuko dira hautagaiak. Proba gainditu beharko da gainerako probak egin ahal izateko. Egitera aurkezten ez direnak baztertuak izango dira.

Ondoren, hautapen probak egingo dira.

5.2. **Proba teorikoa:** egin beharreko lanari buruz labur erantzun beharreko galdera sorta bat erantzutea idatziz.

Epaimahaiak erabakiko du probaren iraupena. Puntuazioa: **25 puntu** gehienez ere. Galdera guztien balioa berdina izango da. Proba hau ez da baztertzailer izanen.

5.3. **Proba praktikoa:** lanpostuarekin lotutako ezagutza praktikoak egiaztatze egingo da. Puntuazioa: **50 puntu** gehienez ere. Proba hau baztertzailer izanen da. Proba, ahal bada, euskaraz egingo da.

## 6. oinarria. Kontratazioa egiteko izangaien zerrenda.

6.1. Izangaien kalifikazioa bukatu, epaimahaiak aldi baterako kontratazioa egiteko izangaien zerrenda argitara emanen du Berako Udaletxeko Iragarki Oholean eta web orrian, lortutako puntuen arabera.

6.2. Berdinketa egonez gero, azterketa teorikoan lortutako puntuazioaren arabera erabakiko da. Hala ere, berdinketa mantenduz gero zozketa egingo da.

6.3. Izangaien zerrendan hurrenkera jartzeko kontuan hartuko da hautapen probetan lortutako puntuazioa (handienetik hasita) eta 1. oinarrian ezarritako lehentasuna.

6.4. Epaimahaiak Alkatzari bidaliko dio prozeduraren ostean osatutako zerrenda, kontratazioak egin ahal izateko.

## 7. oinarria. Datuen babesari buruzko informazioa.

### Datuen tratamenduaren arduraduna

Identitatea: Berako Udala.

Helbidea: Herriko Etxeko plaza 1, 31780, Bera

Telefonoa: 948 630005

Posta elektronikoa: [bera@bera.eus](mailto:bera@bera.eus)

Datuak babesteko ordezkaria: [dpd@bera.eus](mailto:dpd@bera.eus)

**Helburua:** Enplegu deialdiak kudeatu, botere publikoen erabileraren baitan.



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAQF PX9U QM9A 9NFC

**DEIALDIA ERAIKUNTZAKO OFIZIAL-PROFILA DUTEN ZERBITZU ANITZETAKO 2 LANGILE KONTRATATZEKO - SEFYCU 72925**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2024/06/10herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

**Oinarri juridikoa:** 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.

**Datuak mantentzeko denbora:** Datuak gordeko dira aipatutako helburua lortzeko behar den denborean eta Udalak tratamenduari buruzko erantzikuzunak dituen bitartean. Gainera, Artxibo eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean araututakoa bete behar da.

**Datuen hartzaileak:** Datuak eman ahalko dira epaile eta auzitegiei, indarrean dagoen legedia konplutuz, eta argitaratuko dira udal web orrian eta iragarki oholetan, deialdian ageri den bezala.

**Eskubideak:** Sarbide, zuzentze eta baliogabetze eskubideak lehen aipaturiko helbidea erailiz. Gainera, erreklamazioa aurkezten ahal da Datuen Babeseko Espainako Agentziaren aurrean: Jorge Juan, 6, 28001 (Madril) edota [www.agpd.es](http://www.agpd.es)

## 8. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen oinarrien aurka edo berau aplikatzeko egintzen aurka, hautara, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

- Berraztertzeko errekurtsoa, egintza burutu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo errekurritu nahi den ekintza jakinarazten denetik hasita.

Gainera, epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahalko da, berako Udaleko alkate udalburuari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi ondotik.

Beran, dokumentu honen sinadura digitalaren egunean.  
Alkatea, Aitor Elexpuru Egaña.



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikokoan argitaratua  
2024/06/10

BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAQF PX9U QM9A 9NFQ

**DEIALDIA ERAIKUNTZAKO OFIZIAL-PROFILA DUTEN ZERBITZU ANITZETAKO 2 LANGILE KONTRATATZEKO - SEFYCU 72925**Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 5 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2024/06/10



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua  
2024/06/10

## ERANSKINA ESKABIDE EREDUA

### DATU PERTSONALAK:

Izen- abizenak:.....  
NAN edo baliokidea: ..... Jaiotze data:.....  
Non jaioa:.....(..... ) Nazionalitatea:.....  
Helbidea:.....  
Herria:.....Probintzia:..... Posta kodea:.....  
Telefonoak:..... Posta elektronikoa:.....

### ADIERAZTEN DUT:

- Lanpostuan aritzea galarazten didan eritasun edo urritasun fisiko edo psikikorik ez dudala.
- Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunetako bakar bat ere ez dudala.
- Ez nautela ezein Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizi disziplina espediente bidez, eta ez nagoela ezgaituta eginkizun publikoak betetzeko.
- Deialdiaren 2. oinarrian eskatutako titulazioaren frogagiria aurkeztu dudala.
- Ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako.
  - Euskara maila frogatzen dut. (*Adierazi X batez zein den*).
  - Euskara proba egin behar dut. (*Adierazi X batez zein den*).

### ESKATZEN DUT:

Hautapen probetara onartua izatea, eraikuntzako ofizial-profila duen zerbitzu anitzetako 2 langile kontratatzeke, aldi baterako lan kontratuarekin.

(Eguna eta sinadura)

BERAKO UDALEKO ALKATEA.



BERA

Egiartzapen-aseguru kodea: 3AAA AAQF PX9U QM9A 9NFQ

**DEIALDIA ERAIKUNTZAKO OFIZIAL-PROFILA DUTEN ZERBITZU ANITZETAKO 2 LANGILE KONTRATATZEKO - SEFYCU 72925**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 6 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2024/06/10



ZIGILUA

Iragarki-ohol elektronikoa argitaratua  
2024/06/10



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

[www.bera.eus](http://www.bera.eus)  
[bera@bera.eus](mailto:bera@bera.eus)

**EGINBIDEA: Jasota uzteko agiri hau ekainaren 10eko 148/2024 Alkatetzaren ebazpenaren bidez onartu dela.**

**Beran, dokumentu honen sinadura digitalaren egunean.  
IDAZKARIA,  
Miguel J. Belarra Tellechea.**



BERA

Egiatzapen-aseguru kodea: 3AAA AAQF PX9U QM9A 9NFQ

**DEIALDIA ERAIKUNTZAKO OFIZIAL-PROFILA DUTEN ZERBITZU ANITZETAKO 2 LANGILE KONTRATATZEKO - SEFYCU 72925**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

7tik 7 orrialdea